



noaua

**Urtarrilaren 30eko greba
deialdiak atxikimendu
ugari batu ditu**

**Gure Pakea jubilatuta
elkarrekin, harreman
sarea ehuntzen**

**Igandean Sutegin,
euskarazko filma
gazteentzat**

Matrikulazio garaia da

**Udarregi ikastolan,
Zubietako Eskolan
eta Aginagako Eskolan**

Opariak eta barruko landareak

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

AZKEN PLAZAK

Noruegako Fiordoak
(kruzeroa)

BIDAIK TALDEAN

DENBORALDI AURRERAPENA

Eslovenia & Istria

NOAOA
BIDAIK

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus **noaoa.eus**

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

PATXAKA SAGARRONDO BASATIAK
(Juan Gamio)

Gaur egunean sortzen diren sagarrondo landareen eta sagar basatitik sortutako landareen arteko desberdintasunen azalpena.

- Basatiaren hazitik sortutako landareak nola funtzionatzen duen, eta bere eragina landareak gaixotasunei aurre egiteko eta fruituaren kalitatean.
- Landarearen atal bakoitzak zer egiten duen eta bere eragina.
 - Nola sortu landare osasuntsu bat.
 - Barietateen arteko desberdintasunak.
 - Landarearen bizi iraupena.
- Landaketa egiterakoan kontutan eduki beharreko betebeharrak.
 - Zalantzak argitu.

OTSAILAK 6, OSTEGUNA.
Potxoenea, 18:00 DOAN

Usurbilgo Udalak

ZUBIALDE
PATXAKAK
SAGARRONDO MONTAJA

Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

Albiste iruditzen

Bizitza duinaren alde greba orokorrarekin bat, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako hamarnaka eragileek urtarrilaren 30erako deitua duten greba orokorrarekin bat egitea erabaki du Erraustegiaren Aurkako Mugimendua. Herritarrak ere grebara eta mobilizatzen deitu dituzte, modu berezian Donostian egingo den manifestaziora. “Han izango gara bizitzaren aldeko eta erraustegiaren aurkako gure aldarriekin, gaiak erabat loturik ikusten baititugu”.

Ohar bidez jakinarazi dutenez, “gure ustez egoera oso argia da”. Egoera argia eta “oso gordina” herritarrontzat. Lotsagabetzat jotzen dute Gipuzkoan agintean direnen alderdien jokabidea. “Erraustegiak eta gainerako azpiegitura erraldoiak egiteko milioiak eta milioiak xahutzeko inolako lotsarik ez duten agintari politiko horiek esaten digute ez dagoela dirurik herritarren bizitza duinagoa egiten duten neurri sozialetarako, besteren artean,



Erraustegia ez pizteko eskaera PSE-ren Donostiako egoitza atarira eraman zuten.

pentsioetarako”, adierazi du Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

Mobilizazioa PSE-ren egoitza atarian

Erraustegia ez pizteko eskaera PSE-ren Donostiako egoitza atarira eraman zuten Erraustegiaren Aurkako Mugimendua. Erraustegia pizten zuten parodia modukoa egin zuten Bilbo plazan. Eta gero plazari birak ematen aritu ziren

errausketaren aurkako aldarrien artean. “Erraustegiari intsumisioa”, “PSOEek klima aldatzen du” edota errausketak klima aldaketan sakontzen duela salatu zuten.

GuraSOSen agerraldia

Erraustegia martxan jartzea geratzeko lehen ekimen juridikoa ezagutaraziko duela iragarri du GuraSOSek sare sozialen bidez. Urtarrilaren 29an izango da.

Laburrean

Urtarrilaren 31n, Argia Sarien banaketa

Urtarrilaren 31n ospatuko dute ekitaldia Atxega Jauregian. Euskarazko kazetari-tza eta komunikazioaren eremuko sariak banatuko dituzte atal hauetan: prentsa, kanpaina, irratia, ikus-entzunezkoak eta Internet.

Otsailean goizez irekiko dute KzGunea

- Otsailak 3-14, 9:00-11:00 “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.
- Otsailak 17-26, 9:00-11:00 “Kudeatu zaitez Google aplikazioekin”.
- Informazio gehiago: 943 023 684.

Inauteri Festarako prestatzen

“Dantza” izango dugu aurtengo mozo-rruetarako gaia, otsailaren 22an ospatuko dugun jaialdian. NOAA! Kultur Elkarteak prest du jada eragile anitzekin antolatutako duen egitaraua. Dantzariak, txaranga, kontzertuak, jolasak...

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eu ||| www.noaua.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eu

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

lbilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Itxaso Orbeago

Tirita kentzeko afera

Urteko lehen odol ematea izan berri dugu, eta joateko aukerarik izan ez badut ere, guztiokin partekatatu nahi nuke nire esperientzia. Ea horrela, martxoko odol ematean marka guztiak hausten ditugun. Ez pentsa urte luzeetako esperientzia izugarria dudarik, bitan baino ez baitut eman odola.

Lehen aldiz maiatzean animatu nintzen odola ematera, eskolan urtean pare bat aldiz antolatzen duten odol emate horietako batera. Lehenago ere gure eskolan izanak ziren behin edo bitan, baina ingururik ez zen animatu eta nik planteatu ere ez nuen egin. Betikoa. Klaseko lagun batek esan zidan odol ematea zela, eta asmoa zuela maiatzeko deialdian parte hartzeko. Tira, ordurako nik ere behin baino gehiagotan pentsatu izan nuen odola ematea, baina gazteagoa nintzela, 15 bat urterekin edo. Orduan, ordea, gaztegia nintzen horretarako. Unibertsitatean ere, kamioi bat egon ohi zen sarritan kanpusaren kanpoaldean odola eman nahi zutenek hala egin zezaten. Behin edo behin ikusi izan nuen jendea bertara sartzan, baina nire ingurukoekin ez zuten odola emateko asmorik erakutsi eta, orduko aukerari ere muzin egin nion.

Aukera polita zela irudituz zitzaidan maiatzeko odol emate hori; behintzat probatzeko. Han hurbildu nintzen laguna hartuta horrenbeste ordu irakaslearen sermoiak

entzuten pasatutako gela batera. Oso bestelako itxura zuen egun hartan; mahaiak eta aulkiak alde batean pilatuta zeuden, eta haien lekuan 10 bat ohatila elkarri begira. Sartu eta berehala hurbildu zitzaigun erizaina, datuak hartzeko asmoz. Nire laguna berehala pasatu zen medikuarengana, odola emateko prest zegoen jakiteko. Niri betiko galderak egin zizkidan sarrerako neskak: adina, odol taldea, gaixotasun garrantzitsurik badudan familian... Behin oinarritzko datu horiekin, eta odola emateko gutxiengo baldintzak beteta, medikuarengana joateko esan zidaten. Aldiro egin beharreko prozedura da medikuarena; galdera erraz batzuk lehenik: dentistarenean izan zara azken aste hauetan?, sendagaririk hartzen ari zara?, atzerrian izan zara azken hilabeteetan?... arriskuan egon zaren jakiteko egiten dituzte gisa horretako 10 bat galdera. Behin ezerekin kutsatzeko arriskurik izan ez nuela ziurtatuta, anemiaren frogatik egin zidaten. Ziztada txiki bat hartzerakuslean, eta odol horren analisi azkarra.

Behin prozeduraren zatirik errazena pasatuta, asko gehien beldurtzen duten momentua iritsi zen; ziztada hilgarriaren garaia. Ohatilarako bidea erakutsi zidan erizainak, eta odola ateratzeko besoa aukeratzeko plazera eskaini. Nahiko beldur banuen, besoko indarra galduko ote nuen edo. Bietako bat anputatzeko momentua iritsita, nik aukeran eskuina nahigo, ezker

bainaz. Zaina aurkitzeko ez zuten inolako arazorik izan, urrutitik ikusten den zain berde lodi horietako bat baitaukat. Ziztada bera ia sentitu ere ez nuen egin, arkatzarekin umetan nahigabe ziztada gogorrak egin izan dizkiot neure buruari. Ziztada behar bezala egin ostean, “eskua ireki, eskua itxi, eskua ireki, eskua itxi”, horrelaxe eman nituen 10 bat minutu. Nahiko odol emate galdoa naiz orokorrean. Dena ongi, ia litro erdiko poltsa beteta. Erdi etzanda lasai lasai alboko odol ematearekin hizketan egon nintzen gero, ezkerreko eskuarekin presioa egiten nuen bitartean ziztadaren lekuan, ahalik eta azkarren ixteko. Bost bat minutuan eserita jarri ninduten, ia amaituta zegoen prozesua, eta segituan klasera itzultzeko prest egongo nintzen. Ez zen hala izan, ordea. Eseri eta berehala, nire kolorezko mundua zuri-beltz bilakatzen hasi zen, orbain grisak tarteko. Buruz gora jarri ninduten berehala lau erizainen artean, eta haietako batek haizea ematen zidan. Segituan itzuli zen betiko kolorezko mundua nire begi aurrera. Aurpegia zuri-zuri nuela, bi fruitu lehor pakete jan nituen ia litro erdi kokakolarekin batera. Nire onera segituan itzuli nintzen, eta orduerdiko klasera itzultzen utzi zidaten. Irakasle eta ikasle guztiek zuten ordurako nire eguneko showaren berri. Oso kolore ona nuela esan zidaten, atzeman ere ez zela egiten. Bi ordu beranduago aitortu zidaten apunteak har-

tzeko papera baino zuriago nengoela. Behin horrelako bizipenak izanda, berriz nola ez nuen bada errepikatuko?

Azaroan eman nuen odola bigarren aldiz, eskolan orduan ere. Nerbioak dantzan joan nintzen orduan, ez beldurragatik, berriz hankaz gora ibiltzeko kezkatik baino. Ordurako ongi ikasia neukan esne kikara bat gosalduta joateak ez dela ongi gosalduta joatea, eta sabela ongi beteta etzan nintzen ohatilan. Ezinhobe joan zen prozedura, erizainak bota zidan bronka kenduta: ezin omen nintzen zorabiatzeko beldurrez joan, alajaina. Zorionez, ez nintzen zorabiatu ere egin! Aurreko aldian bezala, ordea, tirita kentzen sentitu nuen min handiena. Hori bai, depilatze lanak ederki aurreratu nituen. Hori bai dela mina, eta ez ziztada. Nire sorpresarako, aurreko aldian ez bezala izugarriko ubeldua ateratu zitzaidan hurrengo egunean, hantura eder batek lagunduta. Hilabetez gimnasioko yonkia izan nintzen. Morea izan zen aurrena, berdea gero, eta horia azkenik. Barregarri geratzeko ohitura eta erraztasuna dudala azpimarratzea ia sobera dago ulertuko duzuen bezala.

Uztailean Usurbilen emango dut odol lehen aldiz. Nik uste Andoainek dakarkidala zorte txarra, ez nire berezko baldarkeriak. Ea behingoz odola ematean izaten dudana aferarik handiena tirita kentzea baino ez den!

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbeago

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Xuaren gurasoak Valentziatik Madrilera espetxez aldatuko dituzte

Mugimendu gehiago Xua eta gurasoen familian. Urtarrilaren 19an 3 urte bete zituen haur usurbildarra gurasoengandik bereizi zuten, jaio zenez gerortik amarekin bizi izan eta baimentzen ziotenean aitaren bisitak jasotzen aritu ostean. Aipatu moduan ordea, Espainiako legediak behartuta, espetxealdiaren hiru laurdenak beteta jada baldintzapean aske egon behar izan baina oraindik orain sorterritik 600 kilometro-ra dagoen Valentziako Picassenteko espetxean urrunduak segitzen duten Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarengandik bereizi zuten Xua duela bi igande.



Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarengandik bereizi zuten Xua duela bi igande.

Egun hartan Usurbilen egin zen elkarretaratze berezian, "zaintza epaileak espetxetik egun batzuk ateratzeko baime-na ukatu die Olatzi eta Patxiri, nahiz eta bigarren graduari izanik, horretarako eskubidea izan baduten", berri eman zuten Xua Gurasoekin Etxera herri plataformak.

Valentziatik Madrilera

Xua gurasoengandik bereizi eta egun gutxira hedabideek Olatz eta Patxi espetxez aldatuko dituztela berri eman zuten. Espetxe Zuzendaritzak Olatz eta Patxi Valentziako Picassentetik Madrilgo Aranjuetzeko kartzelara lekuz aldatzea erabaki zuela, bestelako xehetasunik

XUAREN GURASOAK

Olatz eta Patxi Valentziako Picassentetik Madrilgo Aranjuetzeko kartzelara lekuz aldatuko dituzte

eman gabe, nahiz "ume txiki bat dutela nabarmentzen duten".

Olatz Lasagabasterrek espetxe kide izan zuen Sara Majarenas donostiarraren kasuan ere berdin jokatu zuen bere garaian, lekualdaketa bera bideratu zuen Espetxe Zuzendaritzak. Leku aldaketa horretan, espetxe horren menpeko etxe batera eraman zituzten Sara eta alaba Izar, espetxealdia

amaitu artean batera egon zitezten.

Ez da lehen leku aldaketa

2018ko urtarrilean, Xua urtea betetzear zela amona Mari Karmen Anzak NOAUA!ri eskaini zion elkarrizketan oroitzen zuen moduan, iragarritako espetxe aldaketa hau gauzatuko balitz, ez litzateke Olatzek eta Patxik 10 urteotan bizi izandako lehenengoa. Espetxe aldaketa gehiago izan dituzte azken hamarkadan. 2009ko ekainean atxilotu zituztenetik 2018ko urtarrilera Anzak kalkulatu zuenez, ordurako 280.000 kilometro eginak zituen espetxean dituen senideak bisitatzeko joan eto-

rrietan. "Lehenbizi Avila eta Madrilera, gero Alacantera, Avilara berriz... eta orain Valentziara", oroitzen zion Anzak NOAUA!ri. Garai batzuetan espetxe ezberdinetan izan dira Olatz eta Patxi, bateratuak beste uneetan. Xua jaio zenetik espetxe berean dira, Valentziako Picassenten, modulu ezberdinetan ordea.

Hurrengo deialdiak

Urtarrilak 31, ostirala

■ 20:00 Urtarrileko azken ostiraleko euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
943 36 10 79

Gure Pakea, harreman sarea ehuntzen

Taldea egituratzen segi eta jasotako babesaren indartzea ditu arreta gure nagusiak aurrera begira Gure Pakea jubilatuko elkarteak. Urtarrilaren 17an egin zuten bazkideen urteroko batzar nagusia Artzabalgo ekitaldien aretoan. Akta irakurri, jardueren balantzea egin eta urteko kontuak aurkeztu zituzten. Honekin batera, elkartearen zuzendaritza batzordearen zati bat berritzea ere egokitzen zitzaion.

Batzordea bera indartu nahi dute, bere jardun eremua zein den ondo definitua utzi nahi lukete, datozenek ziurtasunez joko dezaten. “Bolondresak izanik, batzordeak lasai egin behar du lan”, azpimarratu dute. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dute, “akordioak adostu eta denak, bazkideak, elkartearen eta Udalak eskutik helduta joatea, bestela bakoitzaren bere aldetik doa”.

Aintzakotzat hartuak izateko elkarte barruan eta erakundeekiko hartuemanetan, babes handiagoa eskertuko lutekela diote. “Bazkideei onena eskaintzeko dago Gure Pakeako zuzendaritza batzordea eta horretan segi nahi dugu. Bakarrik ezin gara inora joan”. 700 bazkide dituen bilguneak barrura begira, zerbait antolatzen duenean, parte hartze handiagoa sustatzea nahiko lukete, eta



Urtarrilaren 17an egin zuten bazkideen urteroko batzar nagusia Artzabalgo ekitaldien aretoan.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

“Bazkideei onena eskaintzeko dago Gure Pakeako zuzendaritza batzordea, eta horretan segi nahi dugu”

horretarako gogorarazten dutenez, beti daude proposamen eta iritziak entzun eta hauek bideratzeko prest. Zuzendaritza berri dute honetan, “gerturatu, esan zer aldatu, hobetu”. Batzordean dute familia giroa hau indartu nahi dute elkarte mailan. “Bolondresak gehien eskertzen dutena da jendeak parte hartzen duela ikustea. Jendeak erantzuten

ez duela ikustean, boluntariorik ere deseroso dago egiten ari den lanketarekin. Horretan pixka bat huts egiten ari da”.

Bide honetan sakonduko balitz, etorkizunean gainbehera prozesu batean murgiltzeko arriskua ikusten dute. Eta elkartearen desagertuko balitz, ohartarazten dutenez, laguntza galerak ez lirateke zuzendaritza batzordearentzat izango, “Gure Pakeako 700 bazkiderentzat baizik”. Abiarazten dituzten dinamika ere norabide horretan kokatuak daude. Datorrena, ekitaldi anitzekin osaturiko Jubilatuen Astea dute. Ekimenotan nahiz urtean zehar antolaturiko gainerakoetan parte hartzeko deia egiten dute.

“Erresidentzia urgentea da”

Kezka gaitz nagusietako bat gaitz bidean den erresidentzia dute. Adinekoen kolektiboa, leku guztietan bezala, hazten doa Usurbilen ere. Eta honenbestez, baita haien beharrak ere, nahiz denborak aurrera egin. “Erresidentzia behar da eta orain. Urgentea da”, gogorarazi dute Gure Pakea Elkartearen zuzendaritza taldeak.

Lehendik ere sarritan orotarazi dutenez, “jendea zain dago, hemengo jendea beste erresidentziatan dago”. Lehenetsuneko gaitz dute proiektu hau aurrerabidean jartzeko pauso gehiago ematen segitzea eskatzen dute, “atzerapena baita herriarentzat”.

Pentsio duinen alde, greba orokorrarekin bat

Pil-pilean da pentsioen gaia ere. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eragile anitzekin batera, ostegunerako, urtarrilaren 30erako deitu duen greba orokorreko aldarrietako batek lotura zuzena du gai honekin.

Lan eta bizi duinekin batera, pentsio duinak ere

exijituko baitira hilaren 30ean. Gure Pakea Elkartetik NOAUA!ri berri eman diotenez, aipatu bilguneak hilaren 15ean egin zuen bileran, aipatu greba orokorra babes-erabaki zuten. Eta hilaren 30erako goizeko 11:00etan udaletxe atarian mobilizatzen deitu dute.

Gure Pakea elkartetik adituzera eman dutenez, “ez da ezer egin positiboki orain arte”. Borrokatzen segi beharreko gai bat dela argi dute, bereziki etorkizuneko belaunaldientzat. “Ez dira ezer egiten ari etorkizuneko pentsioentzat. Egungo egoerak oraingo pentsiodunengan

baino etorkizunekoengan eragingo du gehiago”, ohartarazi dute. Belaunaldi berrion babes falta sumatzen dute. Mobilizazioetan pentsiodunak gehiago ikusten direla nabarmentzen dute, gazteagoena baino, baina nabarmentzen dutenez, etorkizuneko pentsioak dira arriskuan direnak.

Jubilazio duina, bermatu beharreko eskubidea

Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteko lehen-dakari Jose Agustin Arrieta Sutegin eskaini zuen hitzaldian, pentsioek Europako historian izan duten bilakera aztertu zuen. Ondorio argi batera heldu zen, espainiar estatua da “aurrekontuetatik diru gutxien bideratzen duena pentsioetara”. Europako BPGaren %15ean dago Europa, espainiar estatua %12an.

Etorkizun kezkarria marraztu zuen Sutegin. Jaiotza tasaren beherakadarena, bizi itxaropenaren gorakadarena. “Helduen kolektiboa hazten, gazteria murrizten” joango



Jose Agustin Arrieta Sutegin izan zen abenduan, hitzaldi bat eskaintzen.

den etorkizuna. 25 urte barru, biztanleen %60a pentsioduna izan daiteke eta “beste %40ak sustengatu beharko du” pentsioen sistema.

Pentsiodunen aldarriek bizirik segitzen dute Arrietaresanetan, nagusia, “sistema

publikoen defentsa” eta 1.080 euroko pentsioak progresiboki lortzen joatea. Argi zioen, “dirua egon badago, ezin gaituzte errudun sentiarazi, denbora gehiagoz bizitzeagatik”. Are gehiago, pentsioen “itsulapikoa” hustu bada, “Estatuko

zorra ordaintzeko” izan dela diote, bankuen erreskatara bideratu dutela dirua. Enplegua hobetu eta aurrekontuekin batera, “zergekin pentsioak finantzatu daitezke, osasun eta hezkuntza eremuak bezala”.

Pentsiodunen aldarrietatik “batzuk partzialki lortu dira”. Halere, aldarri guztiak lortzeko borrokarako gogo nabarmendu zuen. “Jendea oso aktibo dago, bildu, kontzentratu eta manifestatzen”. Gogorarazi zuenez, “gure ongizate estatuko eskubidea da, 40 urtekin gora lan egin ostean. Jubilazio garaian bizitza duina izatea, bermatu beharra dagoen eskubidea da”.

Baratze zaintzari lotutako hitzaldi zikloa Potxoenean

Hazi Fundazioak Europar Batasuneko FEADER funtsarekin batera finantzaturiko baratzea zaintzari buruzko hitzaldi sorta antolatu du otsaileko bigarren asterako. Potxoenean egingo dira bilkurak.

Otsailak 11, asteartea

■ 15:00-17:00 Pipermina hazteko sistema mistoa. 2019ko esperientziaren emaitzak, koko-zuntzarekin. Jorge Arizmendi (ABELUR).

■ 17:00-19:00 Piperminaren biosiaren arazoa. Santiago Laregla/Mikel Ojinaga (Neiker).

■ Matrikula: doan.

Otsailak 12, asteazkena

■ 15:00-17:00 Txertakak tomate-hazkuntzan. DeRuitter enpresako hizlaria.

■ 17:00-19:00 Klimaren eta hidroponiaren erabilera tomate-hazkuntzan. Paco Martin.

■ Matrikula: doan.



Hiru hitzaldi eskainiko dituzte otsailaren 11tik 13ra.

POTXOENEAN

Hazi Fundazioak antolatu du zikloa eta otsailaren bigarren astean egingo da

Otsailak 13, osteguna

■ 15:00-17:00 Zorriaren kontrol biologikoa. Julian Giner.

■ 17:00-19:00 Kontrol fitosani-

tario integratua tomatean. Paco Sala.

■ Matrikula: 36 euro.

Oharra:

Hitzaldiak erdaraz izango dira.

Izen ematea:

627 431 904

fpegipuzkoa@hazi.eus

Sagarrondotik Sagardora

ikastaroa, abiatzear

Otsailetik urrira luzatuko da Alkartasuna Kooperatibak, Sagarkik, Bizi Sagardoak eta Udalak antolatutako ikastaro praktikoa.

■ Otsailak 6: 18:00 “Sagarrondo eta sagar basatieatik sortutako landareen arteko desberdintasunak. Nola sortu landare osasuntsu bat”. Juan Gamio (18:00etan).

■ Otsailak 15: 9:00-13:00 “Sagastien neguko kimaketa, eta ongarriketa”. Aitor Etxeandia.

Oharrak:

■ Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.

■ Ikastaro egunak aldatuak izan daitezke, eguraldia edo irakaslearen eskakizunagatik.

■ Lehen saioan izan ezik, gainerakoak 9:00-13:00 artean.

■ Prezioa: 99 euro (Alkartasunako bazkideek doan). Egun solteetan izena eman daiteke.

Izen ematea: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com

“Gatazkaren konponbidea zapuzteko atxiloketak izan dira”

U surbilgo Sortuk urgen-tziazko elkarretaratzea deitu zuen urtarrilaren 22an Mikel Laboa plazan, egun horretan goizez izandako atxiloketak salatzen. Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilak Sortuko kide Antton Lopez Ruiz, Oihana San Vicente, Oihana Garmendia eta Haimar Altuna atxilotu zituen. Deklaratu ostean aske utzi zituzten arratsaldean.

Lauei elkartasuna adierazi eta atxiloketak salatzen elkarretaratzea egin zuten Usurbilen “bakea eta demokrazia. Erasorik ez!” aldarripean. Sorturen esanetan, “atxiloketa hauek Euskal Herriko eta Kataluniako independentismoak sustatu duten egoera berriarekin erlazionatuta daude”.

Azken atxiloketak, “ezker abertzaleak eta orohar independentismoak irekitzen lagun dezakeen edozein aukera-leiho zapuzteko saiakera bat da”, edozer egiteko prest dagoen “eskuin-mutur poli-



Urtarrilaren 22ko atxiloketak salatzen elkarretaratzea egin zuten Usurbilen.

URTARRILAREN 22AN
Atxiloketak salatzen elkarretaratzea egin zuten Usurbilen “bakea eta demokrazia. Erasorik ez!” aldarripean

ziazko, judizial eta mediatikoarena”.

Egoera honen aurrean, “gatazkarentzat eta haren ondorioentzat soluzio politiko eta demokratikoak susta ditzaten” dei egiten die Sortuk eragile politikoei eta jendarteari.

Harrera ezinhobea irakurketa-solasaldi feministak

Sutegi udal liburutegiak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatutako saioan, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (Susa) ipuin-bilduma ikuspegi feminista batetik aztertzen zuten urtarrilaren 22an Kattalin Miner kazetari eta idazlearekin. Talde ederra batu zen. Ikuspegi berdinetik sortzen lan ezberdinei buruzko solasaldi gehiago antolatu dituzte urtean zehar. Hurrengoa martxoaren 11n; Uxue Alberdiren “Jenisjoplin” aztertuko dute.



Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (Susa) liburua ikuspegi feminista batetik aztertzen zuten urtarrilaren 22an Sutegin.

“Gatazka eraldaketarako aukera” tailerra, Hitz Ahoren eskutik

Hitz Aho Udaregi Ikastolako guraso elkarteak, Arremanitzek eta Usurbilgo Udalak gurasoei zuzenduta antolatutako saioa otsailaren 6an 17:00etan Udaregi Ikastolaren eraikin gorrian. Familian, helduen nahiz haur eta helduen artean ematen diren gatazkei aurre egiteko batzuetan izaten den baliabide faltaren aurrean, gatazkari beste begirada batetik heldu eta eraldaketarako gako batzuk emango dira hitzorduan zehar.

2019-23 Legealdiko Planaren aurkezpena

Datozen lau urteotarako erronkak biltzen dituen 2019-23 urte arterako Legealdiko Plana aurkeztuko du udal gobernu taldeak, ostiralean (hilak 31) 18:30ean Sutegiko erakustaretoan. Plana udazkenean zehar lan-dute udal ordezkari politiko, teknikari eta langileek, Aztiaker ikerguneak koordinaturiko lan saioetan.

Antena kolektiboak aldatzeko garaia

Telebistako zenbait kate ikusten segi nahi baduzue adi, otsailaren 11rako egokitu beharko dira Lurreko Telebista Digitaleko antena kolektiboak. 5G telekomunikazioetako sarea hedatzeko frekuentziaz aldatu beharko dira telebista kateak eta horretarako aipatu moduan, antena kolektiboak egokitu beharko dira. Antenak egokitzeak ez du ekarriko kate berriak ezta daudenetako bakar baten desagertzerik ere.

Grebarako hamaika arrazoi, eragileen esanetan

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitu du urtarrilaren 30eko greba orokorra. Euskal gehiengo sindikala dago bertan; ELA, LAB, STEILAS, ESK, HIRU, ETXALDE, EHNE. Eta eragile anitz: pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte mugimendua, bazterketa sozialaren aurkako plataformak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sarea... Eragile sare honetako Buruntzaldea mailako ordezkari bat Hernanin bildu zuten joan den astean. Greba zergatik eta zertarako egin hausnartu zuten.

ELA

Eskubideen galera ukazina eta grebaren balioa nabarmentzen zituen grebaren arrazoi gisa. Grebaren bidez urte luzez lortutako aldarrikapenak goraiatu zituen. Azken urteotako mugimendu feministaren eta pentsiodunen mobilizazioen esperientziek eginiko ekarpena. Grebaren helburua, gobernuak interpelatzea litza-teke, plan alternatiboak mahai gainean jarrita. “Gure eskubide guztiak aldarrikatu eta mahai gainean jartzeko ordua da”, ELAren esanetan.

LAB

Madritetik datozen murrizketei horma bat jarri, eta subiranotasunaren alde Euskal Herrian dauden “su txikiak” metatzeko garaia dela nabarmendu zuen LAB-ek. “Hau ez da greba defentsiboa, ofentsiboa baizik”, gogorarazi zuen. Azkeneko 2013ko greba orokorrak utzitako arrastoa gogorarazi zuen, testuinguru hartan landu eta idatzi baitzen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta, ostegun honetako grebaren sustatzailea, “biharko euskal estatuaren konstituzioaren oinarria”. Argizioen etorkizunera begira “es-



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitu du urtarrilaren 30eko greba orokorra.

PENSIODUNAK

“Soldata miserableak, kontratu zaborrak... Gure ondorengoak zarete hori guztia ordainduko duzuenak”, ohartarazi du pentsiodunen mugimenduko kide batek

tatu propioa lortzen dugu, edo buklean segiko dugu”.

Ernai

Grebarako hiru arrazoi nabarmendu zituen gazte mugimendua: prekarizazioaren larritasuna, aktibazio sozial ezberdinak batu beharra eta independentzia alternatiboan sakontzea, “espainiar eta frantziar estatuen inboluzioaren aurrean”. Eskubide Sozialen Kartarekin bat egiteaz gain, bereziki sistema kapitalistak gehien kolpaturiko gazte, emakume eta etorkinen bizi egoerak duintzeko haratago joan eta neurriak hartzeko beharra azpimarratu zuen Ernaik. Gazteei dagokienez, pobrezia aurre egiteko eta emantzipazio neurriak, edota zerbitzu publikoak indartzea.

Koordinatzaile Feminista

Prekarietate, indarkeria matxista eta hetero araurik gabeko gizartea eratu eta arrazakeriaren, gerraren eta kolonialismoaren kontra manifestatzeko beharrezkoa iruditzen zaio Koordinatzaile Feministari osteguneko greba. Deialdi honetara martxoaren 8ko ereduak ekarri nahi dela gogorazi zuen: “amantalak balkoietan, deialdietan gure presentzia bermatzea, zainketa lanak kolektibizatzea”... Bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozialera aldatu behar gara mugimendu feministaren esanetan eta urratsak eman; lanak denon artean banatu, bizimodu sostengarria berrantolatzea, “pertsona guztiok eginiko ekarpenak kontuan hartuta”.

Pentsiodunak

“Soldata miserableak, kontratu zaborrak... Gure ondorengoak zarete hori guztia ordainduko duzuenak”, ohartarazi zuen pentsiodunen mugimenduko kide batek. Greba deialdiari ongi etorria egitearekin batera gaineratu zuenez, “gaiak denoi eragiten digu. Beharrezkoa da. Pentsiodunok babestuko dugu”.

Greba orokorrari lotutako mozioa

Urtarrilaren 30eko greba orokorraren egunez egokitzen zen udalbatzarra egunbete, hilaren 29ra aurreratu dute. Zumarte Musika Eskolako eraikinaren birgaitze lanak hartuko dituzte ahotan udal taldeek asteazken arratsaldeko 18:00etan. Horrekin batera, greba bera izango dute hizpide; lan, pentsio eta bizi duinaren aldeko mozioa aurkeztu eta bozkatuko dute.

Gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak aurreko greba deialdietako gutxieneko zerbitzuak finkatu ditu hilaren 30erako; %30 garraio zerbitzuetan, ospitaleetan jai egunetako zerbitzua, anbulatorioetan larunbatetako, ikastetxe ez unibertsitarioetan bi langile gutxienez eta EHUn bat, larrialdietan ohiko zerbitzua, adinekoen zentroetan %50a (%10 gehiago otorduetan). Greba deitu duten sindikatuek, gutxieneko zerbitzuak gehiegizkotzat jo eta milaka langile greba eskubiderik gabe utziko dituela salatu dute.

Herrian ere nabariko da greba

Udal zerbitzuetan gutxieneko zerbitzuak finkatu dituzte. Udarregi Ikastolan ere bai, langileek asanbladan grebarekin bat egitea erabaki ostean. Industrian edo herri merkataritzan ere nabariko da lan uztea, eremuotan ere greba deialdiarekiko atxikimenduak bildu baitituzte.

Erresidentzietako langileak: “Duintasunaren alde, gizarte osoarentzako ari gara borrokan”

Urtarrilaren 30erako deitua dagoen greba orokorra, lan, bizi eta pentsio duinen aldekoa da. Hiru aldarri nagusiok zeharkatzen dituen sektoreetako bat oinarritzko eskubideen aldeko borrokan murgildua den Gipuzkoako zahar-egoitzetako erabiltzaile eta langileen egoera dugu.

17 hilabete, 200 greba egunetik gora bete dituzte, eta egoera zein den ikusita, “hau luze joango da, badakigu”, diote haientzat, erabiltzaile eta gizarte osoarentzat, lan eta bizi baldintza duinak exijitzen ari diren Gipuzkoako erresidentzietako beharginek. Sektore honetan dira lanean Usurbilgo hainbat lagun ere. Haietako birekin, Aitziber Aranberri eta Lourdes Arantzazistokerekin batu zen NOAUA!, sindikatuak azkeneko patronalarekin hilaren 23an bildu eta biharamunean.

“Ilea hartzen ari zaizkigu bai Patronala eta Foru Aldundia”, adierazi dio aldizkari honi Aranberri. ELA sindikatuak deitutako greban parte hartzen ari diren langileen esanetan, Gipuzkoa mailako hitzarmena eta enpresa akordioa biak batera sinatzea, eta 2017-18 soldaten izozterik ez izatea eskatzen dute, negoziazioetan aurrerantz jotzeko. Ez dira gutxieneko baldintzok bete. Oraingoz, otsailaren 7ra arte greban segiko dute.

3 urte hitzarmenik gabe

2016an amaitzen zitzairen lan hitzarmena berritzeko garaian piztu zen gatazka. 2017an plataforma bat eratu eta ekarpenak biltzen aritu ziren. Langileen eskaintzaren aurrean “2017 osoan ez genuen erantzunik jaso eta 2018. urte er-



7 hilabete, 200 greba egunetik gora bete dituzte Gipuzkoako erresidentzietako beharginek.

GIPUZKOAKO ZAHAR EGOITZETAKO LANGILEAK

“Ilea hartzen ari zaizkigu Patronala eta Foru Aldundia”, adierazi dio aldizkari honi Aitziber Aranberri

dialdera mobilizatzen hastea erabaki genuen”, azaldu digu Aranberri. Lehenbizi mobilizazio solte batzuk antolatu zituzten eta Patronalaren aldetik erantzunik gabe jarraitzen zutenek, urte bereko irailean, gaurkoz amaitutzat eman ez duten “greba hastea erabaki genuen. Irailean egun bat, urriaren 3, azaroaren 5, abenduan astebete...”.

Tinko eusten diote oinarritzko eskubideen aldeko borrokari. “Ahal dugun guztietan kalean gaude”. Herriz herri plazaratu dituzte haien aldarriak. Joan den ostiralean ere Foru Aldundi atarian elkarretaratu ziren azkeneko, baina greba

egiteko jartzen dizkieten trabak agerikoak dira. “%50-60ko gutxieneko zerbitzuak finkatu zizkiguten hasieran, %70-80ra igo zituzten segituan, orain %80-90ean daude”, aipatu digute. Horrekin batera, errudun sentiarazi nahia ere azpimarratzen dute. “Sufritzen dutenak erabiltzaileak dira noski, bereziki dependentsia egoeran diren adineko erabiltzaileak. Baina gu borrokan ari gara gure lan baldintzen baina baita zerbitzuaren kalitatea hobetzearen alde”.

“Itxaron pixka bat”, lantokiko esaldi erabiliena

Sektorea pribatizatzeke joera argiaz ohartarazten digute. “Ez da batere justua eta bidezkoa zerbitzu publiko hau enpresa pribatuen kudeaketaren esku egon eta negozioan bilakatzzea”. Horren aurrean, “errentagarria izan behar du gure sektore honek? Hori da gure galdera”, dio Lourdesek.

Erantzunak argia dirudi, zer-

bitzu publikoak errentagarria baino kalitatezkoa izan behar du. Baina langileen esanetan, ematen den “zerbitzuaren kalitatea ez da batere ona”. Eguneroko jardunean sumatzen dute; lanean aritzeko bost edo sei ordutegi ezberdin, gehiegizko lan kargak eta lanok egiteko denbora falta... “Gure esaldi erabiliena itxaron pixka bat izan ohi da. Komunera adibidez ez doa bakoitzak nahi duenean, horretarako ordutegia finkatua dute”.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak udako oporraldi betean, uztailaren 31n ratioen berri ematen zuen dekretua plazaratu zuela kontatu digute, “zaharkituak daude, duela 20 urtekoak dira, hobetu ordez okertu egiten ditu”. Etorkizunean eraikiko dituzten zahar egoitzetarako hobekuntza arkitektonikoak iragartzen ditu. “Hori oso ondo dago, baina zertarako izango dituzte adinekoek hobekuntzok, gero haiei laguntzeko langilerik ez badute?”.

“Hau bizitzen ari gara emakumeak izan eta zaintza lanetan ari garelako”

Langile baldintza prekarioetan aurkitzen diren langile ia denak edo gehienak, emakumeak dira, eta noski, ez da kasualitatea. “Hau bizitzen ari gara emakumeak izan eta zaintza lanetan ari garelako. Orain arte musutruk egin izan da zaintza lana, ezkutuan, etxean, aitortza sozial eta ekonomikorik gabe. Sistema kapitalista honen oinarria izan gara. Lan merkatuan ere eskulan merkea izatea nahi dute, erabat prekarizatu izatea. Argi denez, sistema honetan bizitzari eta zaintzari ez zaio behar duen lekua ematen”.

Horregatik diote, “aztertzen hasten bagara ze lan sektore dauden borrokan, gehienetan emakumeenak daude; garbiketa edota zaintza lanetan aritzen direnak”. Arrazoia argi dute, “era prekarizatuan ari garelako lanean eta emakumeak garelako”.

Langile prekarizatuak emakumeak dira eta zerbitzu prekarizatuak jasotzen ari diren erabiltzaileak, pentsiodunak, hau ere ez da kasuali-



“Sistema honetan bizitzari eta zaintzari ez zaio behar duen lekua ematen”, Zahar Egoitzetako langileek ohartarazi dutenez.

GIPUZKOAKO ZAHAR EGOITZETAKO LANGILEAK

“Zahar etxeetan diren pertsonen zaintza eta bizimodu duina ez dutela merezi esaten ari dira. Oso larria da”

tatea. “Adinekoek ere sistema honentzat ekoiztu beharrekoa ekoitzi dute. Orduan, erakundeek behar dena baino gehiago ez dute gastatu nahi haiekin. Nolabait, zahar etxeetan diren

pertsonen zaintza eta bizimodu duina izatea ez dutela merezi esaten ari dira. Oso larria da”. Bizitza duina, gogorazten dutenez, “denon eskubide unibertsala da, baina sistema honetan ez da hala ematen, sistema honek ekoizpena bakarrik baloratzen duelako, ez bizitza bera”.

Bizi duten gatazkak oraindik luze jo dezakeela uste dute, baina borrokan jarraituko dutela argi dute. “Eskatzen duguna oso justua da, gizarte osoarentzako duintasunaren alde ari gara borrokan”.

Michelingo langileak lanuzteetan

Lan hitzarmen duin baten alde mobilizatzen segitzen dute Michelingo langileek. Urtarrilaren 22an egin zuten ordubeteko lanuzteko irudia duzue ondokoa. Urtarrilaren 29an berriz lantegi atarian mobilizatzekoak dira ordubetez, 14:00-15:00 artean.

Otsailean, lanuzte luzeagoak

Gatazka negoziazio bidera itzultzen ez bada, otsailaren 5ean eta 19an zortzina orduko lanuzteak egitekoak dira.



Gatazka negoziazio bidera itzultzen ez bada, otsailaren 5ean eta 19an zortzina orduko lanuzteak egitekoak dira.

Grabarako aldarri nagusiak

■ Pentsio eta lan baldintza duinak.

■ Zaintzari dagokion garrantzia eta aitortza eman, planetaren jasangarritasuna lehenetsi eta bizitza duina erdigunean jarriko duen eredu sozio-produktiboa.

■ Tokiko merkataritza eta kontsumo eredu jasangarria.

■ Pentsiodunentzat: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, erretiroa 65 urterekin, pentsioen eros-ahalmena bermatu, pentsioa kalkulatzeko 15 urte kontuan hartzea, jasangarritasun-faktorea kentzea, pentsio sistemaren finantzazioa kotizazio sozial eta zergen bidez bermatzea...

■ Langileentzat: 1.200 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko lan astea, soldata-arrakalak desagertzea, kontratazioetan diskriminaziorik ez, etxeko eta zaintza lanak duindu, Zapatero eta Rajoyren lan-erreformak bertan behera uztea, lan-harremanetarako eta babes-soziale-rako esparru propioa...

■ Eskubide sozialen bermea: menpekotasun egoeran daudenei laguntza zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa, alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko eskubidea legez bermatzea...

Mobilizazioak

Urtarrilak 30, osteguna

■ 09:00 Herri Bira Oiardo Kiroldegitik.

■ 11:00 Pentsiodunek deitutako elkarretaratzea udaletxe atarian.

■ 12:00 Pentsiodunen manifestazioa Donostiako Alderdi Ederretik.

■ 12:30 Manifestazio orokorra Donostiako Artzai Onaren Katedral paretik.

■ 18:00 Hernanira joateko gazte deialdia Oiardo Kiroldegian.

■ 18:30 Gazte blokea Hernaniko Tilosetan.

■ 19:00 Eskualdeko manifestazioa Hernanin.

■ Deitzailea: Greba batzordea.

Udarregi ikastola: “Jendartean sortzen diren beharrei erantzun nahi diegu”

Matrikulazio garaia iritsi da ikastetxetara. Mariaje Imazek Udarregi ikastolako eskaintza azaldu digu.

NOAUA! Matrikulazio kanpaina abian da. Zein da Udarregi ikastolak Usurbilgo umeei eta gurasoei egiten dien eskaintza?

Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria: Matrikulazio kanpaina guztietan bezala, helburua da gure hezkuntza-proiektuaren berri ematea. Azken urte hauetan indarrean ipini ditugun egitasmo garrantzitsuenak azaldu nahi ditugu. Gizartea aldatzen doan heinean, ikastolak ere garai berrietara egokitzen joan behar du, jendartean eta familietan dauden hezkuntza-eskakizunei erantzun ahal izateko.

Gure proiektua eraldatzen eta sendotzen jarraitzen dugu etengabe. Azken urteotan, beste ikastolekin batera partekatzen dugun Konfiantzaren Pedagogia egitasmoaren ikuspegiak garrantzia handia hartu du. Ikaslea erdigunean jarri eta ikaslearen behar guztiei erantzuteko oinarrizkoak diren konpetentziak garatzen laguntzen diogu. Konpetentzian oinarritutako hezkuntzari garrantzia handia ematen diogu. Honi lotuta, lanketa sakon bat egin genuen iaz. Hau zen abiapuntua: *Zer nolako pertsonak hezi nahi ditugu ikastolan? 16 urterekin Udarregitik ateratzen direnean,*



Ikastolen leloa hau da: “Ikastola, etorkizunerantz hezkuntza eraldatzen”.

MARIAJE IMAZ

“Inklusiboa da gure eredu; erritmo, aniztasun eta behar espezifiko guztietara irekita”

nolako ikasleak irudikatzen ditugu? Balizko ikasle horren profila osatzeko garaian, ezaugarri hauek nabarmendu ziren: sortzailea, euskaldun eleanitza, euskaldun konprometitua, kritikoa, feminista, autonomia, inklusiboa, naturarekin konprometitua, ekintzailea, jokabide etiko duna eta bere burua zaintzen jakingo duena. Hamaika ezaugarri horien inguruan osatzen ari gara gure hezkuntza eskaintza osoa.

Hitz gutxitan, hori da Udarregi ikastolaren bide-orria, ezta?

Ikastolaren jardun osoa horretara zuzendua dago, eta ikuspegi

hori kontuan harturik, aldaketak txertatzen ari gara. Daukagunetik eta daukagun hori eraldatuz, gure hezkuntza proiektua aberastuko dugu. Adibidez, espazioak egokitzen ari gara, barrukoak eta kanpokoak. Gelako espazioa beste modu batean ulertzen dugu eta zirkulazio librerako aukera jorrotzen ari gara oraintsu.

Bestetik, kanpo espazioaren kontzepzioari beste zentzu bat ematen diogu, eta ikastolaren Hezkuntza-Proiektuari lotutako esku-hartze ezberdinak proposatzen ari gara. Patioa eta frontoia estaltzeko lanean jarraitzen dugu eta laster batean gauzatu da estaltzearen aspaldiko asmoa; aldiz, ez gara horretara mugatuko, eta lantalde bat sortu dugu, kanpo espazioaren berrantolaketa-proposamena lantzeko.

Gizartea aldatzen doan heinean,

eskaintza ere egokitu egin behar da, ezta?

Ikastola guztietan bide hori hartu dugu. Bakoitzak duen errealitateari ari gara lanketa egiten. Gu, hezkuntza eredu propio horretarantz goaz, aipatu berri ditugun ildo horiek jarraituz. Zentzu horretan, eraldaketa didaktikoa, metodologikoa eta teknologikoa etengabea da. Jendartean sortzen diren beharrei erantzun nahi diegu. Ez dugu ikastola isolatu bat nahi. Herrian eta jendartean ematen diren egoera anitzei erantzun ahal izateko. Inklusiboa ere bada gure eredu; erritmo, aniztasun eta behar espezifiko guztietara irekita.

Euskalduntasuna, funtsezkoa da ikastolekiko ereduaren eta euskaldun konprometitua hezi nahi ditugu. Euskararen ardaztutako proiektu eleanitza garatzen dugu. Ingelesa lau urtetik aurrera hasten dira ikasten, frantsesa hautazko gaia da DBH-n. Honekin batera, Euskal Herriko kulturaren eta ekintzetan murgilduta dago ikastolaren proiektua.

KiVa ikastola ere bagara. Eskola jazarpenari aurre egiteko proiektua da KiVa eta emaitza oso onak eman ditu orain arte gurean. Tratu desegokiei aurre egiteko, ikasleei baliabideak eskaintzen zaizkie unitate didaktiko ezberdinen bitartez. Ikaslearen inplikazioa handia da. KiVa martxan jarri genuenetik elkarbizitza hobetu da.

“Ilusio osoarekin ekiten diogu eguneroko lanari”

NOAUA! Udarregira lehen aldiz hurbildu behar duten gurasoei zer aholkatuko zenieke?

Mariaje Imaz: Hemen atea irekita dauzkagu beti. Esango nieke gugana hurbiltzeko konfiantza guztiarekin. Guk gure ikastola estimu handian dugu, eta iruditzen zait oso lan interesgarri eta ona egiten ari garela berrikuntza pedagogikoaren

eremuan. Zentzu honetan, ziur gaude, Usurbilgo Udarregi ikastolak egiten duen hezkuntza-eskaintzak, familiek beren txikiarentzat nahi dutena bezain osatua eta kalitatezkoa eskaintzen duela, eta irudikatu dezaketen eredu onenaren pare aurkituko dutela.

Lehen aldiz hurbiltzen diren gurasoak ilusio handiarekin

gerturatu dira, beren seme-alabentzat eskolarik onena emateko, eta modu arduratsuan bizi dute garai hau. Esango nieke euren txikiak konfiantza osoarekin ekar ditzaketela hona. Oso ondo artatuak izango direlako, giro adeitsuan eta maitekorrean.

Gustuko dugu gure lana eta konfiantza eta ilusio osoarekin

ekiten diogu eguneroko lanari. Euskal Herrian zehar, han-hemenka, dauden beste ikastolekin partekatzen dugun hezkuntza eredu elkarrekin lantzen dugu eta elkar laguntzen diogu. Familia handia gara, are eta handiagoa, ikastolan konfiantza jartzen duten eta hurbiltzen diren familiekin!

“Guraso Eskolak bezalaxe, Hitz-Ahok ere sekulako lana egin du urteotan”

NOAUA! Zerbitzuetan ere errepazten dute gurasoek. Ikastolatik aparte bizi diren ikasleek autobusez hurbiltzeko aukera dute, ezta?

Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria: Ikasleak oinez etortzea bultzatzen dugu baina jakitun gara herriko gune batzuk ikastolatik aparte samar daudela. Ikasle horiek autobus zerbitzuaz baliatzeko aukera dute. Santuenera, Aginagara, Zubietara, eta Lasarte-Oriaraino, iristen da.

Jangela zerbitzua ere eskaintzen dugu. Bertako produktuak sukaldatzen ditugu eta herriko hornitzaileekin egiten dugu lan. Herriko eta eskualdeko ekoizleen produktuak kontsumitzen ditugu. Elidakura osasuntsuaren eta arduratsuen alde egiten dugu: produktu ekologikoei lehentasuna emanez, garaian garaikoa kontsumituz.

Zaintza zerbitzuaz ere baliatzeko aukera dute.

Goizean goiz lanera joan behar duten gurasoek lehenago ekar ditzakete umeak, 8:00etatik 9:00etara. Eta ekainean eta irailean, arratsaldeko 16:30ak arteko zerbitzuaz baliatu daitezke.

Aisialdiaren arloan ere ahal-egin berezia egiten ari gara. Iaz arte, eskolatik aparteko jarduerak kirolarekin lotuta zeuden gehien bat. Aisialdiaren beste kontzeptzio bati helduz,



“Beren herriari, jendarteari, munduari ekarpenak egingo dizkioten euskaldunak hezi nahi ditugu”.

MARIAJE IMAZ

“Bertako produktuak sukaldatzen ditugu eta herriko hornitzaileekin egiten dugu lan”

Zirimara egitasmoa jarri dugu martxan. NOAUA!, Usurbilgo Udala, eta Kirol Patronatuarekin elkarlanean. Ikasleak beste kontestu eta beste balore batzuen inguruan hezte du xede Zirimarak. Gaitasun ezberdinak lantzeko aukera dute Zirimaran, herrian diren espazio libreak eta naturak eskaintzen dizkigun elementuak gehiago baliatuz. Familia-planak ere antolatzen dira.

Beka sistema ere aipatu nahi nuke. Sistema propioa dugu Udarregi ikastolan. Diru-poltsa bat jartzen dugu horretarako

propio. Jarritako baremoaren baldintzak betetzen dituzten familiek bekaz baliatzeko aukera dute. Bonifikazioa %100ekoa da.

Zer nolakoa da gurasoekiko harremana?

Garai batean, ikastolaren has-tapenetan, gurasoen partehartzea oso bizia zen. Orduantxe sortu zen Guraso Eskola. Denbora luzez funtzionatu zuen baina errelebo faltarengatik zailtasunak azaltzen hasi ziren. 2006. urtean beste saiakera bat egiten hasi ginen, gurasoen inplikazioa oso beharrezkoa baita. Horrela sortu zen Hitz-Aho Guraso Elkar-tea. Eta garai bateko Guraso Eskolak bezalaxe, Hitz-Ahok ere sekulako lana egin du urteotan. Ikastolako hezkuntza proiektuari loturiko egitasmoe-

tan partehartzen eta familiek bizi dituzten hezkuntza-behar horiei erantzuten. Tailerrak eta hitzaldiak antolatzen dituzte eta oso baliagarriak dira gurasoentzat.

Horretaz gain, saiitzen gara etengabeko harremanean egoten gurasoekin. Ikasleek etapa bakoitzean egiten ari diren lanketen berri emateko, bilera pedagogikoak egiten ditugu eta horietara guraso asko animatzen dira.

Orain ere, datozen lau urteotarako plan estrategikoa osatzen ari gara Artezkaritza eta Zuzendaritza taldearen artean. Familiei beren espektatibak, desirak eta iritziak eskatu zaizkie eta jasotako ekarpen esanguratsuenak kontuan hartuko dira, datozen lau urteetarako lantzen ari garen Planaren elaborazioan.

“Helburua da pertsona konpetenteak eta sendoak hezte”

NOAUA! Etorkizunari begira, zeintzuk dira Udarregi ikastolak dituen erronka nagusiak?

Mariaje Imaz: Ikastolako espazioetan egin behar diren eskuhartze horiek egiten jarraituko dugu. Bestetik, Haur Eskolaren esleipena hor dago. Kudeatzen ari garen esleipena

2008koa da eta 12 + 1 urterako egin zen. Epe-muga horretara hurbiltzen ari gara eta dagoneko bagabiltza Udalarekin hizketan.

Gainontzean, herriarekin elkarlanean jarraitu nahi dugu, irekitzen diren prozesu partehartzaileetan gure esku dagoena eginez. Euskaraldia

eta antzeko egitasmoetan hartuko dugu parte; atzerritik datozen familien harrera planei segida eman; inklusibotasunean sakondu...

Usurbilgo herritarren hezkuntza beharrak asetzen lagundu nahi dugu. Helburua da pertsona konpetenteak eta sendoak hezte, bizitzako erronkei

ekiteko prest egongo direnak. Finean, beren herriari, jendarteari, munduari, ekarpenak egingo dizkioten euskaldunak hezi nahi ditugu.

Informazio gehiago:

943 361 216
usurbil@ikastola.eus
www.udarregi.eus

Aginagako Eskola: “Ikasleen interesetatik abiatzen gara”

Txikitasunak ahalbidetzen dien ikasleekiko hartueman eta ezagutza sakonean, ikasgeletako gazte-txoeren adin nahasketatik sortzen den elkarren zaintzan eta haien interesak abiapuntu dituzte proiektuen lanketan, ardatz guztiotan oinarritzen da matrikulazio epea zabalik duten Aginagako Eskolaren jarduna. Ikastetxeko zuzendari Leire Salaberriarekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Matrikulazio kanpaina abian da. Zein da zuen ikastetxeak umeei eta gurasoei egiten dien eskaintza?

Leire Salaberria: Familia giro goxoan gaude. 2-12 urte artekoak adinez nahastuak dauden 10 ikasleko gela txikiak ditugu. Txikiak helduenekin kontaktuan, helduenak txikiak, elkarri eragiten, elkar zaintzen... Oso harreman politak sortzen dituzte. Zenbait ekintza egiten ditugu eskola guztia nahastuta, horretan datza eskola txikiaren aniztasuna. Ikasleak oso ondo ezagutzen ditugu. Heltzen gara puntu batera non hain gutxi daudenez badakigun ume bakoitza nolako den, zer atera daitekeen ume bakoitzetik, zer hobetu, aldatu. Badakigu ikasle bakoitza zertan den punta-puntakoa eta horretan sakondu dezakezu edo ahuleziaren bat baldin badu indartu. Zerbitzuei dagokienez, goiz txokoa eskaintzen du guraso elkarteak 8:00-9:30 artean, eta



2-12 urte bitartekoentzako hezkuntza eskaintza dute Aginagako Eskolan.

LEIRE SALABERRIA

“Guraso Elkarte oso eraginkorra du eskolak. Harreman oso estua dugu egunerokoan, hurbilekoa”

eskolaz kanpoko ekintzak: psikomotritate, pintura, artea. Guretzat indargune handia da iaztik jangelako zerbitzuan osatuak prestatutako elikagaiak jatea. Kalitatean, goxotasunean, denean izugarri irabazi dugu. Beka garraioak ditugu. Klaseen ordutegia honakoa da: 9:30-13:00, 14:30-16:15.

Zuen ikastetxera lehen aldiz hurbildu behar duten gurasoei zer aholkatuko zenieke?

2-12 urte bitartekoentzako hezkuntza eskaintza dugu. Ikasle berriekin malgutasun handiz jokatzeko dugu, bai sa-

rerra zein irteera orduetan. Gurasoekin adostuz, beti ere umearen behar horiek asetzen saiatzen gara. Matrikulazio egunotan gu hemen egongo gara. Ikasleak klasean dauden artean etorri daitezke gurasoak eta eskola bizirik dela, eguneroko hemengo funtzionamendua nolako den ezagutu.

Zer nolako hezkuntza proiektua garatzen duzue zuen ikastetxean?

Proiektuak funtzionatzen dugu, beti ere kurrikuluma kontuan izanda, eta kurrikulumezko edukia betetzen direla bermatuta. Abiapuntua ikasleen interesak izaten dira. Eskola osoa gai baten inguruan aritzen saiatzen gara, beti ere adin tarte ezberdinetako interesak kontuan izanda. Lehen hiru hilekoan adibidez historiaurrea landu genuen. Mapa kontzeptual bat

egiten dugu gaiari buruz zer dakigun eta zer jakin nahi dugun jasotzeko. Amaieran mapa berriz hartu eta zer ikasi dugun biltzen dugu. Proiektuarekin lotutako irteerak egin edo azalpenak ematera gonbidatzen ditugu ikasleen senideak.

Zer nolako da gurasoekiko harremana?

Guraso Elkarte oso eraginkorra du eskolak. Elkar lankidetzan oso ona, harreman oso estua dugu egunerokoan, hurbilekoa. Ekainean ospatu genuen eskola txikien jaialdia prestatzeko ikasturtean zehar lanketa gehiena gurasoekin zuten. Egunean bertan eta aurretik auzoko gazteak, helduak, denak inplikatu ziren. Inplikazioa auzo osokoa izan zen. Orduan bezala, egunerokoan herriarekin harremanak eta loturak zabaltzen saiatzen gara.

Ikasle helduenak, ingeleseko barnetegian

Ohi baino ikasle gutxiago dituzte Aginagako Eskolan egunotan. Ingeleza indartzeko barnetegian dira eta, LH 4, 5 eta 6. mailako ikasleak, Urnietako Salestarren ikastetxeko aterpetxean.

Astebeteko egonaldiak izan ohi dira

“Hezkuntza Sailak bideratzen duen proiektu bat da, ingeleza sustatzeko. Astebete pasatzen dute bertan ingeles munduan murgildu-

ta. Lehen aldiz eskatu dugu bertan parte hartzea eta eskaera onartu digute”, adierazi dio NOAUA! aldizkariari Leire Salaberriari Aginagako Eskolako zuzendariak. Ingeleseko ezagutza indartuta

itzuliko da aipatu ikasle taldea Aginagara.

Informazio gehiago:

943 372 044

012261aa@hezkuntza.net

www.aginaga.eskolatxikiak.org

Zubietako Eskola: “Eskola txikien sena bermatzen jarraitu behar dugu”

Lehen Hezkuntza osoa eskaintzeko aukera izaten hasi zirenetik, urte urte ikasturte berri bat martxan jartzen doaz Zubietako Eskolan. Aurten bosgarrena abiatu dute estreinakoz, eta datorrenean seigarrena jarriko dute abian. “Eskola izugarri handitzen doa” adierazi dio lerrootan NOAUA!ri zuzendari Iugatz Illaramendik. Baina argi dute, LH osoa eraikitzen ari diren honetan, “eskola txikien sena bermatzen jarraitu behar dugu”.



“Zubietako Eskola izugarri handitzen ari da. Duela 5 urte 30 ikasle inguru zituen, egun 64. Hurrengo ikasturtean 76 bat izan daitezke”.

NOAUA! Matrikulazio kanpaina abian da. Zein da zuen ikastetxeak umeei eta gurasoei egiten dien eskaintza?

Iugatz Illaramendi: Eskola txikiaren senak bere gain duena da hasteko adin aniztasuna. Espazio amankomun asko dituzte lanerako eta jolaserako. Ikasleek elkarri asko dute aportatzeko, elkarreragin hori eguneroko lanean eta hartuemanetan antzematen da. Horrek elkarbizitzari izugarritzko

IUGATZ ILLARAMENDI

“Txikitasunak asko errazten du ikasle eta familiekiko zuzeneko hartuemanak izatea”

mesedea egiten dio. Irteeraren bat egiten dugunean, naturalki sortzen zaie ikasleei elkar zaintzea. Bestetik, ingurune natural eta sozialarekin harreman zuzena dugu. Eskola oso bizia da ditugun harremanak

oso estuak direlako. Proiektuak lan egiten dugu. Aurreko proiektua mendiak ziren, orain elikagaiak. Guraso edo senideak hemen daude sarritan, proiektu hauei lotutako esperientzia edo bizipenak partekatzen. Komunitateak aportatzen digun gutia gureganatuz eskola biziagoa da.

Zuen ikastetxera lehen aldiz hurbildu behar duten gurasoei zer aholkatuko zenieke?

Eskolako proiektuan, metodolo-

gian eta profesionalengan konfiantza izatea. Sinesten dugun proiektuan lan egiten dugu. Familia batek matrikulazioa bideratzen duenean edozein eskoletan, lehenbizi ezagutu dezala proiektua eta benetan proiektuarekin bat egiten badu orduan matrikulatu daitezela.

Zer nolako hezkuntza proiektua garatzen duzue zuen ikastetxean?

Ez dugu testu liburuekin lan egiten, ikasleekin hitzartzen ditugu gaiak eta horiek konpententziak lantzen laguntzen digute. Edukia helburu ditugun konpetentziak lantzeko bitartekoa da. Une oro ikasleen interesetatik abiatzen gara. Ikasle talde bat motibatua bada jarrai dezake, beste ikasle talde bati beste zerbait eskaini behar bazaio, asteartero biltzen gara irakasle taldea berrantolatzen. Askotan nahasten da proiektua lan egitea ikasleak nahi duena egitearekin. Ikasleak, eskolara garatzera eta lanera datoz.

“Oso lan talde kohesionatua dugu”

NOAUA! Etorkezunari begira, zeintzuk dira zuen ikastetxeak dituen erronka nagusiak?

Iugatz Illaramendi: Eskola izugarri handitzen doa. Duela 5 urte 30 ikasle inguru zituen, egun 64. Hurrengo ikasturtean 76 bat izan daitezke. Irakasle taldea ere bikoiztu da urteotan. Kopuruz igo dira haurrak eta familien aniztasuna ere izugarri handitu da. Dagoeneko ez da landa eremuko ikasleak jasotzen dituen eskola bat, usurbidar edota lasartearrak ditugu baita. Aberastasun handiagoa

dugu eta horri erantzun bat eman behar zaio kopuru, aniztasun edota elkarbizitzaren ikuspuntutik. Erronketako bat, zuzendaritza taldeak oso argi duguna da eskola txikien sena bermatzen jarraitu behar dugula. Zuzendaritza talde berriari egokitu zaigu eskola oso bat eraikitzen hastea, hezkuntza eskaintza LH osora zabaltzeko aukera izan genuenetik. Aurten lehenbiziko aldiz 5. maila abiatu dugu, datorrenean seigarrena jarriko dugu martxan. Izugarritzko erronka da, Lehen Hezkuntza eraikitzen ari

gara, liburutegia hornitzen, 2. mailara arteko materiala genuen lehen, orain 6. mailara artekoa izango dugu. Lehen Hezkuntza eraikitzen amaituta, hurrengo urteetan sendotu eta egonkortu beharko dugu. Erronka handia da, ilusioa ere bai. Egiteko moduak aldatzen eta etengabe egoera berrietara egokitzen goaz. Guretik asko jartzen ari gara, guretik asko duen eskola bat da. Oso lan talde kohesionatua dugu. Esker ona baino ez dut maila berriotako lehen promozioiko ikasle eta gurasoek, aurrekaririk ez duen lehen

promozioa izanik, eskolan jarraituta gurekiko erakusten ari diren konfiantzagatik.

Zer nolakoa da gurasoekiko harremana?

Txikitasunak asko errazten du ikasle eta familiekiko zuzeneko hartuemanak izatea, naturarekiko kontaktua, komunitatearekiko hartuemanak.

Informazio gehiago:

943 372 931

012219aa@hezkuntza.net edo
zubietako@eskolatxikiak.org
www.zubietako.eskolatxikiak.org

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2019-2020 Ikasturtea

Matrikula epea zabalik

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturtako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**
- **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Eroski City * Aginagako Arrate taberna * Zubietako Alamandegia taberna

Edo deskarga ezazu www.noaua.eus-etik/

noaua

tren eta autobus

noaua

ordutegia 19/20

BAZKIDEEN TXOKOA



Otsailaren 7an ZOZKETATUKO dugu:

IRUIN
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Idolia Torregarai Martija

Urte berrirako barre mandamenduak

Urte hasiera asmo berriari ekiteko garaia izaten da: erretzeari uztea, kirol gehiago egitea, dietan hastea,... Guztiak aintzat hartzeko modukoak, garrantzitsuak, ohoretsuak, baina tamalez, gehienetan asmo hutsean geratzen direnak. Hori dela eta, eta gure buruaz harro sentitu gaitzen, urte berrirako asmo lorgarriago bat proposatuko dizuet, hainbesteko lana eskatzen ez duena eta aldiz, emaitza bikainak ekartzen dituen: barre egitea. Bai, bai, irakurle: egunero gutxienez bost minutuz barre egitera gonbidatzen zaitut.

Zergatik? Hasteko, barre egitea oso dibertigarria delako. Ez da gutxi! Barrearen bidez errealitatearekin jolastu dugu gozatzeko, baina baita hura eraldatzeko eta harengandik babesteko ere. Eta hori gutxi ez eta hainbat onura ekartzen dizkigu:

1. Antidepressibo handia da. Zentzuzkoa da pentsatzea barre egiten dugunean ez gaudela triste. Baina horretaz gain, bizitza umorez hartzen ikasten badugu, bizitzarekiko jarrera baikorragoa izango dugu, eta arazoei aurre egiteko gai sentituko gara.



“Arnasketa hobetzen du. Barrez ari garenean biriken aire kopurua hirukoiztu egiten da”.

IDOIA TORREGARAI

“Bizitza umorez hartzen ikasten badugu, bizitzarekiko jarrera baikorragoa izango dugu, eta arazoei aurre egiteko gai sentituko gara”

2. Estresa murrizten du. Barre egitean, kortisol izeneko hormona murrizten dugu, hau da, “Estresaren hormona” izenez ezagutzen dena.

3. Odol-presioa erregulatzen du. Barre egiteak, epe laburrean, antsietatea eta erreaktibitatea murrizten ditu pertsonengan, eta horrek odol presioa murrizten du. Horrek gaixotasun askotatik babestuko gaitu (hipertentsioa, adibidez) eta, horrela, gaixo-

tasun kardiobaskularrak izateko arriskua txikiagotu dugu.

4. Sistema immunea indartzen du. Gogo-aldarte positibo batek gaixotasunetatik babesten duela frogatu da, eta adibidez, diabetesa eta asma bezalako gaixotasunen pronostikoak hobetzen ditu.

5. Minaren sententzia murrizten du. Barre egitean endorfinak askatzen ditugu. Substantzia honen propietateetako bat efektu analgesikoa duela da eta beraz, barre egiterakoan min sententzia murriztu egiten da.

6. Arnasketa hobetzen du. Barrez ari garenean biriken aire kopurua hirukoiztu egiten da. Horren ondorioz azala gehiago oxigenatzen da, eta, horre-

gatik, barre egiteak gaztetu egiten du!

7. Ariketa aerobikoa egiten duzu. Barre egiterakoan gorputzeko 400 gihar baino gehiago mugitzen dira eta beraz, muskuluak forman jartzen ditugu.

8. Digestioa errazten du. Barre egiterakoan erabiltzen ditugun gihar gehienak aurpegian eta sabelaldean daude. Mugimendu abdominal honek masajea ematen digu eta hesteen fluxua errazten du, digestioa erraztuz.

Onura hauek guztiak jasotzeko nahikoa dugu eguneko bost minutu barre egitea. Baina nola? Ba gogoko duzun umorezko pelikula/telesail/monologo hori ikusiz, adibidez. Edo egin ezazu ariketa hau: jarri zaitez ispiluaurrean eta irribarre egin. Ez zaitzula ateratzen? Berdin du, zu, saiatu. Faltsua dela? Lasai, hori ere balekoa da eta! Gezurretako barrea edo egiazkoa, naturala edo behartutakoa, algaraduna edo isila, kontua da guztiek baliotutakoa gure gorputzean zein burmuinean eragiteko.

Eta gainera kirola egiten hasi edo dietan jartzea baino errazagoa da ;)

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idolia Torregarai Martija

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Parti
Parti
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Omenaldi beroa egin diote Miriam Arrillagari



Pilota jaialdia egin zen aurreko larunbatean Aginagako frontoian. Miriam Arrillaga omentzeko "herri argazkia" atera zuten.

Emakume Master Cup-a irabazi zuen duela hilabete pasatxo Miriam Arrillaga pilotariak. Aginagako frontoian eman zituen

lehen pausoak, eta pilota ibilbidean hazten ikusi zuen herriak omendu egin nahi izan du. Pasa den larunbatean, Agina-

gako frontoia goraino bete zen partidak ikusteko, eta omenaldi benetan hunkigarria egin zioten amaieran.

Helduen Hezkuntza Iraunkorrean matrikulatzeko garaia

2020-21 ikasturterako matrikulazioa zabaldu du Usurbilgo Helduen Hezkuntza Iraunkorreko eskolak.

Gogoan izan, DBH-ko titulua eskuratzeko aukera eskaintzen du 18 urtetik gorako herritarrei

zuzenduriko doako hezkuntza eskaintzak. Horrekin batera, oinarrizko kultur formakuntza (hizkuntzak, kalkulua, irakurketa, idazketa...), oinarrizko informatika, memoriaren lanketa, natur zientziak, geografia...

Irteera didaktikoak

Urtean zehar irteera didaktikoak antolatzen dituzte eta urte amaieran atzerrira bidaia.

Informazio gehiagorako:

943 366 608
info@epalarte.eus

Enrike Huizi, Trinketeko Gipuzkoako txapeldunorde

Eskuz banakako finalak urtarrilaren 19ko asteburuan jokatu ziren Iruran. Nagusien 2. mailan, Unai Alvarez hernaniarra nagusitu zen. 40-25 irabazi zuen Enrike Huizi usurbildarraren aurkako norgehiagoka.

Binakako txapelketa hasi da

Eskuz banakako lehia amaitu berritan, binakako txapelketa abiatu da. Nagusien Lehen Mailan sei talde lehiatuko dira, tartean, Pagazpeko ordezkariak. Aurreko asteburuan hasi zen txapelketa. Otsailaren 2an jokatuko da bigarren jardunaldia.

Otsailak 2 igandea

Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila: Iruran, 10:30ean Urnieta-Pagazpe

Otsailak 9 igandea

Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila: Iruran, 10:30ean EPLE-Pagazpe



Enrike Huizi, finalaren amaieran eman zioten garaikurrarekin.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen, parte hartze marka hautsi duen proba

Finkatua zuten gehienezko izen emate kopurura helduta ospatu da aurtengo Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba. Pentsa, alde zureko izen ematea garaia baino lehen itxi behar izan zuen antolakuntzak eta egunean bertan ez zen inskripzioak bideratzeko aukerarik izan. 600 lagunek parte hartu zuten guztira, urtarrilaren 26an Andatzan barrena egin zuten lagun arteko zeharkaldian.

Mendi bizikleta gaineko probek sustatzen duten zaletasunaren lekuko, irteera abiatu aurretik Mikel Laboa plazak zuten itxura. 9:00etan suziria jaurtitzearekin batera Zubiaurrenea kaletik behera arrapaladan joan ziren Andatzara bidean.

“Mila esker parte hartu duzuen guzti-guztioi”

Zeharkaldia osatzeko bi ibilbide izan zituzten aukeran; 21,15 eta 33,68 kilometrotakoak. Bakoitzak bere erritmoan osatu zuten ibilbidea; tartean herritar mordoxka bat baziren.

“Ezer baino lehen: mila esker parte hartu duzuen guzti-guztioi. Hemendik aurrera



600 lagunek hartu zuten parte urtarrilaren 26an Andatzan barrena egin zen lagun arteko zeharkaldian.

ANTOLATZAILEEN OHARRA

“Laster igoko ditugu argazkiak Internetera”

egun batzuk hartuko ditugu proba behin betiko bukatze-

ko, argazkiak igotzeko eta atsedean hartzeko. Hala ere, edozein gauza edo zalantza argitu nahi izanez gero, irisasibt@gmail.com helbidean aurkituko gaituzue”, ohartarazi du antolakuntzak sare sozialen bidez.

Futbol partidak

Otsailak 1, larunbata

■ 9:30 Infantil neskak:

Usurbil F.T.-Zarautz KE

■ 10:30 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil FT “A”

-Ostadar SKT “A”

■ 12:15 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Danena KE “A”

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Ordizia

Oharra: erregionalek ere partida jokatuko dute. Aldizkaria astelehen goizean inprentara bidali genuen unean zehazteke zegoen neurketaren hitzordua.

Euskal Herriko Mus Txapelketa, Usurbilgo kanporaketa

Euskal Herriko Mus Txapelketaren herriz herriko sailkapen proba jokatuko da ostiralean, urtarrilaren 31n, gaueko 22:00etan Aitzaga elkartearen. 21:30ean zabalduko dute izen ematea. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Euskal Herriko Mus Federazioak antolatutako saio hauetan nagusitzen diren bikoteak otsailaren 29an Seguran jokatuko diren Gipuzkoako kanporaketetarako sailkatuko dira. Sari potoloak dituzte jokoan (nazioarteko bidaiak, diru sariak...).

Informazio gehiago:

ehmus.eus

Errioa, arraunlarien lehiagune

Oria arraunketa saioen lehiatokia dugu asteotan. Gipuzkoako Aulki Mugikorreko Arraunketa Olinpikoko Txapelketa ospatu zen urtarrilaren 19an eta Euskadi mailakoa 106 ontziren parte hartzearekin hilaren 26an. Hurrengo hitzordua, otsailaren 22an; Oriako XXVI. Traineru Jaitsiera ospatuko da 16:00etan hasita, Aginagatik Oriara.

Bertako nahiz kanpoko arraunlariak

Azken asteotako saioen antzera, proba bi modalitateetan jokatuko da; 4.000 metrokoa Sarikolatik Oriara; 6.000 metrokoa Mapiletik Oriara. Euskal Herriko nahiz Mediterraneo aldetik etorritako arraunlariak parte hartu ohi dute mende laurdeneko ibilbidea osatu duen proba honetan.



Otsailaren 22an Oriako XXVI. Traineru Jaitsiera ospatuko da, 16:00etan hasita.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelektzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Ilogailurik gabe. Dena berritua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Agnagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki

baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen arida. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Interna moduan lan bila nabil. esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitatea osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz.

Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil,



Zorionak June! Otsailaren 1ean 8 urte beteko dituzu. Familia osoak asko maite zaitugu. Bihotz-bihotzez besarkada eta muxu hauuundi bat!



Zorionak Unax! Otsailaren 4an egingo dituzu 8 urte handi. Egun ederra pasa dezazula. Ilargiraino iristen den muxu pila zuretzako.

Heriotzak

Maria Lopez Curiel

90 urterekin hil zen urtarrilaren 22an, Usurbilen



umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketari. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin

pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, pasatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtariletik aurrera. 671 547 567

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH Tean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zailtasun argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urtarrilak 30 - Otsailak 09

Osteguna 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda

urtarrila/otsaila

30 osteguna

- **Greba orokorra** 09:00etan, Herri Bira Oiar-do Kiroldegitik. 11:00etan, Pentsiodunek deitutako elkarretaratzea udaletxe atarian. Deialdi guztien berri, 11. orrialdean.

31 ostirala

- **Argia sarien banaketa** 16:00etan Atxegan.
- **Legealdiko Plana.** 18:30ean Sutegin.
- **Euskal presoan eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboan.
- **Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa Usurbilen.** 22:00etan Aitzaga elkartearen.

02 igandea

- **Haurrentzako zinea: "Ploey: ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo".** 17:00etan Sutegin.

Igande honetan, zinea euskaraz haurrentzat

Hilabete berria estreinatzearekin batera, bueltan datorkigu otsaileko lehen igande honetan, hilaren 2an, Usurbilgo Udalak Ziortza G.E.-ren laguntzaz haurrentzat antolaturiko euskarazko zine zikloa.

Oraingoan, "Ploey: ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo" proiektatuko dute. "Familia osoarentzako animaziozko abentura hunkigarri honek urte-txirri gazte baten historia azaltzen digu. Hegan ikasteko arazoak ditu; horregatik, negua heltzean, ezin du bere familiakoekin migrazioa egin klima



Igande honetan, 17:00etatik aurrera Sutegin, Ploey hegaztiaren abenturak eskainiko dituzte.

epelagoko toki batera. Bere adiskideek lagunduta, aurrera egin ahal izango du etsaiz jositako mundu batean, benetak heroia bilakatu arte".

Gurasoei zuzenduriko hitzaldia

Hitz-Ahok gurasoei zuzendutako tailer bat antolatu du, Arremanitz eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. "Tratu onez ari garenean, badirudi momentu gatazkatsuek ez daukatela lekurik eta tentsio uneak desagertzen direla. Baina ez da horrela", dio Hitz-Ahok. "Pertsona arteko harremanetan gatazkak ematen dira, saihestezina da. Familian, helduen eta haur nahiz nerabeen artean ere ematen dira, eta hauei aurre egiteko baliabide falta izaten da batzuetan". Horixe da,

beraz, tailerra antolatzeko arrazoi nagusia.

Hitz-Ahoren eskutik

Gatazkari beste begirada batetik heldu nahi zaio, eta eraldaketarako gako batzuk eman. Familiei zuzenduriko tailerra Ikastolaren eraikin gorrian egingo da.

Otsailaren 6an osteguna

- Ikastola gorrian.
- Arratsaldeko 17:00etan.

Datozenak

Santa Ageda bezperan, eskean eta kantuan

Ikastetxeek kalejira saio bana antolatu dute otsailaren 4rako, baita Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak ere:

Otsailak 4, asteartea

Kantu Taldea

- 19:00 Agate Deunaren bezperako koplak saioa herrian zehar. Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Zubietako Eskola

- 10:45 Santa Ageda eskean irtengo dira Zubietako Eskolatik.

Aginagako Eskola

- 14:30 Santa Ageda eskean irtengo dira Aginagako Eskolako kideak.

Udarregi Ikastola

- 14:30 DBHko ikasleak herrian zehar ibiliko dira.
- 15:00 Udarregi Ikastolako kideak kalez kale irtengo dira abestera.
- 16:00 Ikasleak frontoian elkartuko dira.



Kantuan aritzeko aukera ugari izango da otsailaren 4an.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Otar-Goxo
El ikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008



Mondragon
Unibertsitatea

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK

2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

HEZKUNTZA

• LEHEN HEZKUNTZA - HAUR HEZKUNTZA •

ESKORIATZA OTSAILAK 8

LARUNBATA 11:00

BILBO (BBF) OTSAILAK 8

LARUNBATA 11:00

BILBO (BBF) APIRILAK 23

OSTEGUNA 18:00

ESKORIATZA APIRILAK 25

LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

• IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA •

ARETXABALETA OTSAILAK 8

LARUNBATA 11:00

BILBO (BBF) OTSAILAK 8

LARUNBATA 11:00

BILBO (BBF) APIRILAK 23

OSTEGUNA 18:00

ARETXABALETA APIRILAK 25

LARUNBATA 11:00

HUMANITATEAK

• HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK •

BILBO (BBF) OTSAILAK 8

LARUNBATA 11:00

BILBO (BBF) APIRILAK 23

OSTEGUNA 18:00

Etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA** aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake eta antzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

52 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16

 **943 361 216**
Udarregi Ikastola
Gernika ibilbidea. USURBIL
www.udarregi.eus